

## FLASHAK

■ **NGUGI** kenyarrak irabazi zuen Munduko Kros Txapelketa gizonetako eta proba horretan bostgarren titulua lortu zuen. Martin Fiz ez zen nahi bezain ondo ibili, eta 24. amaitu zuen, aurreneko zuria izateko ametsetik urrun. Emakumezkoetan Lynn Jennings estatubatuarra irabazi zuen, hirugarren titulua lortuz.

■ **BILBAO ATHLETIC**ek martxa onean darrai eta igandean, puntu garrantzitsua lortu zuen Eibarren aurkako partiduan. Euskal derbi horretako emaitza 1-1koa izan zen. Sestao ere gorantz doa eta 2-1 irabazi zion Sabadelli.

■ **JUVEN**ek ezin izan zion irabazi Europako talde onenetariko den Dornari. Donostiako neskek izugarritzko egurra jaso zuten (54-101). Beraz, Espainiako lehen mailako finalean izateko ia aukerarik ez dute Juvenekoek.

■ **NIGEL MANSELL** britaniarra izan zen Formula 1eko Mexicoko Sari Nagusian garailea. Jadanik, bi proba jokatu dira eta Mansellek irabazi ditu biak. Munduko Txapelketako sailkapenean bera dago lehen postuan eta bigarren Riccardo Patrese da.

■ **STEFAN EDBERG** suediarra ATPko lehen postuan dago berriro ere. Hilabete batzuetan Courier tenislari estatubatuarra egon da sailkapenean buruan, baina Edbergek bere joko nolakoa den erakutsi du azken egunotan eta bera da orain munduko tenislari onena.

■ **PAUL ACCOLA** eskia-tzaile suitzarrak irabazi du Munduko Kopa 1.699 punturekin. Bigarren Alberto Tomba italiarra izan da 1.362 punturekin. Slalomari dagokionez, postuak aldatuta bukatu dute bi eskia-tzaile hauek, hau da, Tomba lider eta Accola bigarren.

■ **BERNARD HINAULT** txirrindulari ohiak eman zion hasiera atzo Bilbao-Bilbao probako V edizioari. Guztira 7.000 txirrindulari bildu ziren 119 kilometroak egiteko. Proba hau, munduko garrantzitsuenetakoa bihurtzen ari da.

■ **CHICAGO BULLS** taldeak 13. partidua galdu zuen Orlandon. Hala ere, ez dirudi inor lidergoa kentzeko gai izango denik eta laster hasiko diren NBAko play-offetan egoera ezin hobean sartuko dira.

## TXIRRINDULARITZA

## Jean Claude Colottik irabazi zuen Setmana Catalanako lehen etapa

Kumer PDMko txirrindulariak 100 kilometroko ihesa egin zuen

**J**ean Claude Colotti txirrindulari frantziarrak irabazi zuen Setmana Catalanako probako lehen etapa. Z taldeko gizonak sprintean lortu zuen garaipena, Sammy Moreels eta Jose Rodriguezen aurretik. Mario Kumerrek (PDM) 100 kilometro inguru egin zituen ihes eginda.

## LLORET DE MAR

Atzo hasi zen Lloret de Mar herrian Setmana Catalanako txirrindulari proba. Bost etapa izango ditu guztira, eta bertan nazioarteko tropeleko ia izar guztiak bildu dira, besteak beste, Claudio Chiappucci, Gianni Bugno, Stephen Roche, Franco Chioccioli eta Pedro Delgado.

Aurtengo edizioak ez du erlojupeko probarik, eta mendiko etapak ere oso urriak dira —hirugarren etapan igoko den La Comella mendatea da aipagarriena—. Beraz, ez da alde handirik lortzeko aukerarik izango, eta garrantzi handia hartuko dute etapa bakoitzean lortutako postuek.

## COLOTTIK ETAPA ETA LIDERGOA

Jean Claude Colotti txirrindulari frantziarrak eskuratu zuen Setmana Catalanako lehen garaipena, 4.24.49ko denborarekin. Z taldekoak sprintean irabazi zuen etapa, Sammie Moreels eta



Jean Claude Colotti, pozik, etapa irabazi ondoren.

Jose Rodriguez txirrindularien aurretik. Colottik urrutitik eraso zuen sprintean, eta lehen postuari eutsi zion helmugara arte, atzetik Moreels eta Rodriguez oso indartsu joan baziren ere.

Dena den, atzoko etapak izan zuen beste protagonista garrantzitsu bat ere, Mario Kumer hain zuzen ere. PDM taldeko txirrindulariak 100 kilometro inguruko ihesaldia egin zuen, baina azkenean ez zuen tropelaren erritmo bizia eusterik izan. Lehen etapa honetako azken kilometroetan erasoak ugariak izan ziren, baina egia esan, oso zaila gertatu zen

tropelaren kontroletik ihes egitea. Alex Zulle suitzarrak lortu zuen, eta atzetik erritmoa bizia zen arren, zenbait kilometrotan ihes eginda joatea ere lortu zuen. ONCEko gizona Lloret de Mar herriko kaleetaraino heldu zen, baina azkenean amore eman behar izan zuen.

Gaur bigarren etapa korrituko da, bi zatitan banatuta. Goizean Pineda-Santa Coloma tarte korrituko da (60 kilometro) eta arratsaldean berriz, bigarrena, Barcelona eta Tarrasa artean (88 kilometro). Gaur ere sprinterrek beren aukera izan dezakete.

## Euskal taldeak motel play offetan

## KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Euskal taldeek hasiera kaskarra eman diote lehen mailara igotzeko play offari. Zortzi poule osatu dira, bakoitza lau taldeekin. Aurreko fasean poule bakoitzeko sei onenek eskuratu zuten txartela eta orduan lortutako postuen arabera parekatu dira play off hauetan.

Ez da nolanhiko kanporaketa izango, eta gainera, luzea. Joan zen igandean hasi eta joan-eturriko hiru norgehiagoka jokatu beharko dituzte asteburuero jarraian. Beraz, apirilaren 26ra arte aritu beharko dute, eta gero... Esan beharrik ere ez dago, galzatzak bete lan izango dituztela euskal ordezkariak. Bestela, emaitza hauei begiratu bat eman besterik ez dago: Bokale 13, Bagneres 28; Mugerre 9 La Teste 9; Pontacq 23 Baigorri 15; A.S. Baiona 12, Ricumes 26. Mugerres taldeak bakarrik lortu zuen



Baigorri taldea.

zerbait positiboa, bederatzina berdindu bait zuten.

## ESPAINIA FRANTZIA FIRA-N

Frantziako selekzioak izugarritzko jipoia eman zion Espainiari FIRA txapelketako azken aurreko neurketan. Aspalditxotik maila galdua, Espainiak ez zuen jokoan ohorea besterik. Egia esan, partidu honetan oso argi geratu zen bi hamabostekoaren arteko aldea.

Frantziarrek lehen mailan jokatzen duten jokalariek zelairatu zituzten: Dwegie, Marfaing, Ougier, Dal Maso, Velo, Chabowsky, Blond eta Benetton besteak beste. Espainiaren aldetik berriz, Altuna, Puertas, Azkargorta, Diaz Paternain eta Auzmendi euskal jokalariek aritu ziren besteak beste. Lurraldean arteko txapelketan, gazteen mailan, Euskadik garaipen handia lortu zuen Valenciaren aurka 4. eta azken partiduan (0-51).

## LABURREAN

## EUGI eta Errasti bihar Bergaran pilota hautaketan

Patxi Eugi eta Jokin Errasti bihar goizeko 10.30etan agertzekoak dira Bergarako Udal Pilotalekuan, igandean jokatu behar duten Eskuz Banakako Txapelketa nagusiko partidurako material hautaketara. Azoizkoa eta azkoitiarra baino ordu erdi lehenago Tapia eta Ogeta selekzionatzaileek pilota otarra prestatuko dute. Eugi eta Errastiren arteko norgehiagokak grina handia eragin du, eta irabazleak Fernando Arretxe izango du aurrean, maila bat gorago ●

## BELGIKAN zazpi entrenatzaile kanporatuak

Zazpi dira dagoeneko Belgikan Aurreneko Mailako futbol Ligan kanporatuak izan diren entrenatzaileak, 91-92 denboraldian. Atzo RC Liege taldeko entrenatzailea, Rene Verheyen, bere postutik bota egin zuten klubeko arduradunek, larunbatean Liege taldeak Bruggeren aurka 0-1 galdu ondoren ●

## OLAZABAL 3. postuan da sailkapenean

Txema Olazabal hondarribitarra hirugarren postuan dago golf jokalarien munduko sailkapenean. Fred Couples estatubatuarra sailkapen honetako lider berria da, Orlandon jokatutako Nestle International txapelketan garaipena eskuratu eta gero. 1986an sailkapen hau ezarri zenetik, Couples da lehen postua lortu duen lehen estatubatuarra ●

## JIM COURIER lehen tenislaria da irabaziei dagokienez

Jim Courier estatubatuarra aurreneko postuan dago tenislari profesionalen irabazien zerrendan. 45 milioi pezeta irabazi ditu. Bigarren postuan Michael Chang dago 39,5 milioi pezetarekin eta hirugarrenean Edberg 27,6 milioiarekin. Suediarrak Tenislari Profesionalen Elkarteak sailkapenean lehen postua lortu du, Courierrek Cay Biscaineko finalerdietan galdu eta gero ●